ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko martxoaren 6a, asteazkena • 28 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2019 Foru Dekretua, otsailaren 19koa. Onespena ematea aldatzeari Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, Euskara, Kultura eta Kirola Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena**

Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu eta arautu zuen.

Kultura Azpiegitura Atalaren buruak erretiroa hartu zuenez eta Kulturaren Plan Estrategikoa 2017-2020 onartu zenez, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak uste du beharrezkoa dela kultura arloan egitura organiko eta funtzionala aldatzea, Kultura Ekintza Zerbitzuari atxikitako Kultura Azpiegitura Atala kentzeko eta Kultura Ekintza Zerbitzuak har ditzan bere gain atal horrek esleituta zituen eginkizunak.

Gainera, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 25/2018 Foru Dekretuaren bidez, onetsi zen Eusko Jaurlaritza-Arabako Lurralde Historikoa Transferentzien Bitariko Batzordearen 2018ko ekainaren 4ko erabakia, Estatuarenak diren eta Arabako Lurralde Historikoan dauden artxiboen kudeaketa eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzeari buruzkoa, eta adostu zuen Arabako Probintzia Artxibo Historikoa kudeatzeko funtzioak eta zerbitzuak autonomia erkidego osorako erakundeetatik Arabako Lurralde Historikoko foru erakundeetara pasatzea. Horregatik, eta kontuan hartuta Euskara, Kultura eta Kirol Sailak artxibo eta liburutegi arloa duela esleituta, beharrezkoa da artxibo hori sail horretako egitura organiko eta funtzionalean eranstea.

Xedapen hau Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren azaroaren 21eko 316/2018 Foru Aginduaren bidez hasi zen lantzen, eta, ondoren, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren azaroaren 23ko 317/2018 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen aldez aurreko onespena ematea proiektuari. Horrez gain, arauen eraginaren txosten laburra egin da; Giza Baliabideen Zerbitzuak eta Antolaketa Zerbitzuak ere txostena egin dute, eta arauen kontrol ekonomikoaren txostena ere egin da, eta dagokion legezkotasun kontrola aplikatu zaio.

Eskumen materialaren oinarria datza 3/1979 Lege Organikoaren 37.3.a artikuluan (abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegorako autonomia estatutuari buruzkoa) eta 27/1983 Legearen 7.a.1 artikuluan (27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoko foru organoen arteko harremanei buruzkoa), zeintzuen bidez lurralde historikoei esleitzen baitzaie beren erakundeen antolamendu, funtzionamendu eta araubidearen gaineko eskumen esklusiboa, nori bere lurraldean. Foru organo horiei dagokie, 8.1.b) artikuluaren arabera, gai horretako "erregelamendu" ahala. Sailen egitura organikoa onesteko eskumen organikoa Gobernu Kontseiluari dagokio, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoarenak, 8.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, gobernuen eta administrazio publikoen araugintza ahala erabiltzean aplikatu behar diren zenbait printzipio eta teknika ezarri zituen, oinarrizkotzat jotzen dituenak. Hori dela eta, maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuan eta administrazio prozedura erkidearen oinarrizko araudian jasotzen diren arauketa onaren printzipioak betez, dekretu hau izapidetzean begiratu egin dira printzipio horiek; hain zuzen, beharrizan, eraginkortasun, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientziaren printzipioak.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Beharrizan eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, proposatutako arautzea beharrezkoa da; izan ere, izan diren aldaketen ondorioz, aldatu beharra dago Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretua, onartu zuena Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala. Proposatutako arauketa da hori bermatzeko tresnarik aproposena.

Proportzionaltasun printzipioa dela eta, proposatutako arauketak ez die ez eskubiderik esleitzen pertsona administratuei, ez eta betebeharrik ezartzen.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, proposatutako arauketa ez doa Europar Batasunaren zuzenbidearen kontra, ez eta gainerako ordenamendu juridikoaren kontra ere.

Gardentasun printzipioa dela eta, kontuan hartu behar da ez dela beharrezkoa kasu honetan aldez aurreko kontsultaren izapidea, 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskineko 10.a) artikuluan aurreikusitakoarekin bat, xedapena antolamenduaren gaiari buruzkoa baita. Arrazoi bera dela bide, entzunaldi eta informazio publikoko izapidea ez da beharrezkoa kasu honetan ere, 29/2017 Foru Dekretuko I. eranskineko 13.4 artikuluaren bigarren paragrafoak dioenagatik. Onetsi ondoren, ALHAOn argitaratuko da, ezagutzera emateko, eta bertara eta berau prestatzeko dokumentuetara sarbidea izatea erraztuko da, gardentasunari buruzko araudiarekin bat etorriz.

Efizientzia printzipioari dagokionez, ez dakar administrazio karga gehigarririk, eta ez du behar, gainera, baliabide publikorik aplikatua izateko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

**Lehenengo artikulua** Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren 16/2016 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, onetsi zuena Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala; hain zuzen ere, 2. artikuluko (Egitura) f) letra berridaztea, honako testu zati hau kenduz: "zeinari atxikitzen baitzaio Kultur Azpiegitura Atala". Testua honela idatzita geratuko da:

"f) Kultura Ekintza Zerbitzua".

**Bigarren artikulua** Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko (Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena) 12. artikuluari (Agiritegi Zerbitzua) b) letra eranstea, eta, ondorioz, c), d), e), f) eta g) letrak, hurrenez hurren, mugitzea, honela:

12. artikulua

Agiritegi Zerbitzuak eginkizun hauek dauzka:

a) Arabako Lurralde Historikoko Agiritegiaren kudeaketa zuzentzea.

b) Arabako Probintzia Artxibo historikoa kudeatzea, Estatuko Administrazioarekin izenpetutako hitzarmenetan xedatutakoaren arabera.

c) Ondare dokumental eta bibliografikoa zaintzea, artatzea eta zabaltzea.

c) Ondarea zabaltzeko behar diren informazio dokumental eta bibliografikorako tresnak prestatzea.

e) Ikerketa historikoa sustatzea eta horretarako aholku ematea.

f) Jarduera didaktiko-kulturalak programatzea: erakusketak, hitzaldiak, ikastaroak, etab.

g) Ondare dokumentala edota bibliografikoa eskuratzeko, dohaintzeko edo gordailatzeko irizpideak proposatzea.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**Hirugarren artikulua** Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko (Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena) 16. artikuluari (Kultur Ekintza Zerbitzua) gehitzea 17. artikuluko a), b), c), d) eta e) letretan Kultura Azpiegitura Atalari esleitutako funtzioak, zeinak 16. artikuluko l), m), n), ñ) eta o) letrak izango baitira; era berean, 16. artikuluko l) letran zegoena p) letrara pasatuko da, eta honela geratuko da:

"16. artikulua

Kultura Ekintza Zerbitzuak, zeinen xede nagusia den kultura jarduera sustatzea, eginkizun hauek dauzka:

a) Lurraldearentzat interesekoak diren kultura erakundeen eta pertsonen arte sorkuntza eta kultura hedapena eta jarduera bultzatzea eta sustatzea.

b) Kulturaren Plan Estrategikoaren prozesua diseinatzea eta lanketa koordinatzea.

c) Kultura premiak aztertzea eta neurri egokiak proposatzea, kultura arteak eta jarduerak bultzatu, indartu eta garatze aldera.

d) Beste erakunde batzuek erabiltzen dituzten kultura politikako eta kudeaketako neurriak aztertzea eta konparatzea.

e) Programatutako kultura jarduerak ezartzea eta ebaluatzea.

f) Kultura ekintza eta hedapena sustatzeko laguntzak eta deialdiak programatu eta ebaluatzea.

g) Udalerriei eta kultura erakundeei aholkuak ematea kultura programazioari, kultura azpiegiturei eta kultura programei buruz.

h) Arabako sortzaile eta artisten ezagutzan eta balorazioan laguntzea eta erraztea.

i) Aldundiaren argitalpenak sustatzea, katalogazio, banaketa eta hedapeneko formula berriak aprobetxatuz.

j) Erakunde publiko eta pribatuekin akordioak proposatzea, kulturaren sustapena eta hedapena erdiesteko.

k) Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea kulturaren arloan, bai estatuan, bai nazioartean.

l) Arabako udalerrietan kultur garapena sustatzen laguntzea.

m) Arte arloko jarduerak bultzatzea eta, besteak beste, arte eszenikoen eta musikaren ikerketa eta hobekuntza sustatzea.

n) Euskara, Kultura eta Kirol Sailak eta beste erakunde batzuek sinatzen dituzten hitzarmenei jarraipena egitea.

ñ) Kultura elkartegintzarekin lankidetzan aritzea eta erakunde arteko ekimenak laguntzea.

o) Herriko jai, urteurren eta ekitaldien kariazko kultur programak gauzatzea.

p) Indarrean diren xedapenen bidez esleitzen zaizkion beste guztiak, bai eta helburuak behar bezala betetzeko agintzen zaizkionak ere."

**Laugarren artikulua** Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuko (Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuena) 17. artikulua kentzea, eta 18., 19. eta 20. artikuluak mugitzea, 17., 18. eta 19.ak izan daitezen, hurrenez hurren.

**Bosgarren artikulua** Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 16/2016 Foru Dekretuak (Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu zuena) onetsitako organigrama, Kultura Azpiegitura Atala kenduz.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau onetsi eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua*
*IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE*

*Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria*
*JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILAREN ORGANIGRAMA

### ORGANIGRAMA DEL DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE






Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.03.06 06:43:06 Z